

FUNTSEZKO ELKARTEAK

1.Zein dira gure funtsezko bazkideak?

Gure funtsezko bazkideak gu geu eta enpresa aurrera eramateko behar ditugun espezialistak izango dira, hau da gutako bakoitzak %20-ren funtzioa izango du enpresan. Adibidez, pertsona bat izango da logistikaz arduratzen direnen buruzagia, beste pertsona bat marketinean arituko da eta gainerakoak ekonomian. Eta horrela dena kontrolatuagoa edukiko dugu.

2.Zein dira gure hornitzaile nagusiak?

Gure hornitzaile nagusiak erlojuak egiteko beharrezkoak zaizkigun materialak sortzen dituzten fabrikak, programatzaileak, medikuak, ekonomia kudeatzen duten espezialistak.

3.Funtsezko zer baliabide behar dira bazkideak eskuratzeko?

Bazkideak eskuratzeko ideia eta proposamen onak edukitzea, antolaketa egokia izatea eta eskaintza ezin hobeak ematea.

4. Funtsezko zer jarduera egiten dituzte bazkideek?

Bazkideek egin behar duten funtsezko jarduera enpresaren negozio-eredua optimizatzea da, horrela arriskuak murriztu ditzakegu eta baliabide desberdinak eskuratu ditzakegu.